

# MUNGIKO UDALETXEAN, “ESPAINIAR BANDERA IPINTZEAREN INPOSAKETAREN, AURKA”



[www.mungia.org](http://www.mungia.org)



**MUNGIA**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

 Mungin  
geure  
ikurrek

**Mungiar hori,**

2014 urtean bete-betean murgilduta gagozan honetan, gure herrirako garrantzizko albiste negatibo baten barri emoteko beharrean nago publikazio berezi honen bitartez.

Pasa dan urtarrilak 7an, urtebarri opari lulu modura jaso genduan Administrazioarekiko Auzietako Bilboko 3. Epaitegiak emondako Epaia jakinarazi euskuen. Bertan, Udaletxean bandera española ipinteko agintzen deuskeue, Espainiako aberriaren zatinezko unidadearen ikur.

Betebehar hori kunplitzea niri dagokit, Alkate moduan eta lehenengo personan. Horrek baina, ordezkari politiko abertzalea nazen heinean, kontzientzia arazo pertsonala daka.

Ez da nire asmoa gai honegaitik nire burua nabamentzea. Izañ be, benetan uste dot bere burua abertzaletzat dauen edonorengan, zuzentzen dauen instituzinoan bandera española jarri beharrak arazo berbera biztuko lekiokeela. Horrela, gure jarrera adierazi besterik ez dot nahi, eretzi berekoak ez diranek, behintzat berori ulertzen laguntzeko asmoz; legea alde badabe be, inposaketa hau antidemokratikoa eta ilegitimoa baita nire aburuz.

Bandera española jarri beharraren inposaketa hau eguneroko afera bilakatu da azken urteotan euskal Udaletxe gehientsuenetan, Espainiako Gobernu Ordezkarien berezko jardueratik harago doanari esker. Sozialistak lehenik eta popularrak orain, hierarkian euren nagusitasuna erakutsi eta baliatuz, zigor penalaren mehatxuean bandera arrotz bat inposatu deusku, gurean, beste udaletxe askotan bezala azken 30 urteotan balkoia banderarik gabe egon arren.

Egoera hau hainbestetan errepikatu da, inposaketa hau "normal" eta "natural"tzat aurkeztu nahi deuskuela

orain. Tamalez, lan horretan ari diranek nahi baino arrakasta handiagoa izaten ari dirala dirudi: hori ondorioztatu liteke behintzat neurri honek ekarri dauen erantzun eskasari kasu eginda, baita alderdi politiko abertzaleen aldekoen edo militanteon artean bere.

Neuk, isiltasun hori gure jarreren berrespen moduan hartzea dot nahiago.

nposaketa honek mungiarren uste eta nahia bortxatzen duela pentsaten dogu Mungiako udal ordezkarien gehiengoa. Horregatik, urtarrilak 19an, San Antontxu jaien erdi-erdian eta ikurrina legeztatu ebanetik 37 urte beteten ziren egunean, ohiz kanpoko udalbatza deitu gendun. Bertan hainbeste mungiar bildu ginen eta beste behin bidegabekeria politiko honen aurrean gure desadostasuna argi eta garbi adierazi gendun. Bide horregatik, gure eskura diran instantzia judicial guztien aurrean helegitea aurkeztuko dogu, eta horregatik Eusko Legebiltzarreko partaide abertzale guztiei dei egiten deutsegut mungiarren nahiaren errespetuan oinarritutako aldarrikapen honetan lagun dagiguten.

Bandera española, bere horretan, ikurrinaren ukapena irudikatzen dau, Herri aske baten sinbolo dan heinean, bere etorkizunaren jabe bakar eta ekslusiboa dan herriaren ikur.

Ez da ez huskeria. Ez da, edo ez leuke izan behar inposaketa hori ezarten deuskuen abertzaleontzat; baina ez da, batez bere ezarri nahi deuskuenentzat: españolismo atzerakoi eta tematiena. Normalizazinoa baliatuz, herri-subiranotasun aztorat batetik eratorritako legeak eskuetan dabezala, non Herri bezala beti indarra erdigaldurik izango garen.

Ez dira ez garai onenak ikurrentzako; are gehiago, kontrako bere esan geinke: diskurso arduratsuak eta politikoki zuzenak dira jaun ta jabe. Krisi ekonomiko gordina jasaten ari garen honetan, berorri aurre egiteko

bideratu behar omen ditugu gure indar guztiak. Lehentasuna personak dirala esaten dabe; eta horretan, normala dan moduan, danok ala danok bat gatoz. Bainan neure buruari bere galdezen deutsot, adierazpen horretan ez eta datorren "personak" zer diran interpretatzeko modu eta ikuspegi partziala eta interesatua.

Dauela ez hainbeste, orain hamarkada gitxi batzuk baino ez, gure aitite eta amomen belaunaldiak bere gabezia handiko garaiak bizi izan ebazan, behar ekonomiko handia eta askatasun falta ikaragarriak bildu ziran momentuan. Halan be, haien kontakizunek eta jasotako oinordetzari jarraiki, badirudi aurrera egiteko borrokak eta momentuan momentuko baldintza gogorrekerekin bere ekiteak ez eutseela Herri moduan askatasunaren aldarrikapenik egitea ekidin. Horrekin batera, euren ikurrak gorde eta jagoteko asmo sendoa, Herri honen nortasun eta batasunaren elementu gisa. Egia da garaiotako agintari politikoek be horretara deitzen ebela, euren lidergoarekin kontsekuente, eta egun baino kontzienteago bere seguruenik, izpiritua, ideologiak eta sentimendua bere "personak" osatzen dituenaz.

Tristea da pentsetea asunto hau arinkeriatzat jo nahi dauenik badala, edo protagonismo nahi hutsal bat lez, ordezkari publiko batzuak, Udaletxe nabarmen abertzale bateko zinegotziek eta alkateak euren Herriaren nortasunaren zeinu garrantzitsuenetariko baten kontra egiten dauen inposaketa bati aurre egiten deutseelako.

Azken hogeita hamar urteotan ahaztuta egon dan Bandera Legea betetera behartzen gaituen horreen benetako nahia jakina da edozeinentzako. Betebehar horrek ez dau personen ongizatearen edo garapenaren alde onik egiten, are gehiago, tentsinoa eta ezinegona sortzen dau herritarren artean, Herri baten borondatea argi bortxatzen dau-eta. Bandera española, handiago zein txikiagoa izan, balkoian, teilituan ala txoko batean jarrita, espinpiar aberriaren batasunaren sinbolo modura inposatzen da. Berori errespetaten dogu, existitzen baldin bada, baina ez gara horren parte. Horregatik, eta Herri honen ordezkari garen heinean, inposaketa horren kontra egin behar dogu eta horretan ari gara.

**Estimado/a mungiarra:**

Avanzados en el comienzo de este 2014, me veo obligada a haceros llegar esta publicación especial en la que se recoge una importante y negativa noticia para nuestro municipio.

El pasado día 7 de enero, como regalo envenado para el comienzo de año, nos fue notificada la Sentencia dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Bilbao, en las fiestas de San Antontxu, cuando se cumplía el 37 aniversario de la legalización de la Ikurriña, un Pleno Extraordinario al que acudieron numerosos mungiarra, y en el que pudimos pronunciarnos una vez más, alto y claro, ante este atropello político. Por ello, planteamos el

día 19 de enero, en plenas fiestas de San Antontxu, cuando se cumplía el 37 aniversario de la legalización de la Ikurriña, un Pleno Extraordinario al que acudieron numerosos mungiarra, y en el que pudimos pronunciarnos una vez más, alto y claro, ante este atropello político. Por ello, planteamos el

cumplimiento de dicha obligación recae en mí, como Alcaldesa, en primera persona, algo que como representante política abertzale que soy, me origina un problema personal de conciencia.

No pretendo ser singular respecto de ésta cuestión, puesto que creo sinceramente que es un problema que en cualquier persona de sentimiento e ideología abertzale obligada a colocar la bandera española en la institución que preside, se suscitaría. Únicamente quiero reflejarlo para que quien no comparta la misma, pueda al menos tratar de entender nuestra postura de radical oposición ante esta imposición que revestida de legalidad, no por ello deja de ser a mi modo de ver, absolutamente antidemocrática e ilegítima.

La imposición de colocar la bandera española, se ha convertido en algo habitual en los últimos años, en la inmensa mayoría de los Ayuntamientos vascos, gracias a la ultraactividad de los Delegados del Gobierno españoles, socialista primero y popular después, empeñados en hacer valer y demostrarlos, bajo amenaza de sanción penal, su posición de superioridad jerárquica, capaz de imponernos una bandera extraña y ajena tras más de 30 años, en los que nuestro balcón, al igual que el de muchos otros Ayuntamientos, ha permanecido sin bandera alguna.

Tan habitual viene siendo la situación, que incluso, se nos quiere presentar dicha imposición, como "normal y natural". Y lo triste del caso es que quienes así actúan, parecen estar obteniendo mayor éxito del que deseáramos esperar: al menos, así podría interpretarse la escasa reacción que parece despertar esta medida, incluso entre quienes militamos

o simpatizamos con partidos políticos de ideología abertzale.

Personalmente, prefiero interpretar ese silencio como ratificación de nuestra postura de oposición.

Creemos la mayoría de representantes municipales de Mungia, que ésta imposición, violenta el sentir de los y las mungiarra. Por ello, planteamos el día 19 de enero, en plenas fiestas de San Antontxu, cuando se cumplía el 37 aniversario de la legalización de la Ikurriña, un Pleno Extraordinario al que acudieron numerosos mungiarra, y en el que pudimos pronunciarnos una vez más, alto y claro, ante este atropello político. Por ello, recurrimos ante todas las instancias judiciales que nos sea posible, y por ello instamos a los y las integrantes abertzales del Parlamento Vasco para que nos ayuden en esta reivindicación de respeto hacia la voluntad de los y las mungiarra.

La bandera española, representa, en sí misma, la negación de la Ikurriña como símbolo de un Pueblo libre, plena y exclusivamente dueño de su futuro.

No es la que se plantea una cuestión baladí. No lo es, o no lo debería de ser, para las personas abertzales que "debemos" someternos a dicha imposición; pero no lo es, sobre todo, para quien pretende imponérnosla: el españolismo más recalcitrante y retrógrado. Bajo el paraguas de la normalización, con una legalidad emanada de una soberanía popular adulterada, en la que eternamente nos veremos diluidos como Pueblo, pretendan ahora convertirnos en sumisos espectadores diarios de su sempiterna negación de nuestros derechos colectivos como Pueblo.

No parecen buenos tiempos para esto de los símbolos; más bien podríamos decir lo contrario: se impone el discurso responsable y políticamente correcto, de que en época de dura crisis económica como la que nos azota, únicamente resulta procedente centrarse en superar la misma. La prioridad son las personas se dice; y en eso, lógicamente, estamos todos y todas de acuerdo.

Pero personalmente me pregunto, si no esconde dicha afirmación, una visión interesadamente sesgada sobre qué debemos interpretar que son "las personas".

No hace mucho tiempo, únicamente

hace unas pocas décadas, la generación de nuestros aïtites y amamas, vivió también una época de grandes penurias, de severa necesidad económica unida a la falta de libertades de todo tipo. Sin embargo, de sus relatos y la herencia recibida, parece deducirse que la lucha diaria por salir adelante, por superar las estrecheces coyunturales, no impidió a esas generaciones mantener viva la reivindicación de libertad del conjunto del Pueblo del que formaban parte, y junto con ella, la firme voluntad de mantener y preservar sus símbolos como elementos de identidad y unión de esa colectividad. Es cierto que por aquél entonces, también los dirigentes políticos de la época, alentaban a ello, consecuentes con su papel de líderes, y conscientes quizás en mayor medida que en la actualidad, de que también el espíritu, la ideología y el sentimiento conforman, a "las personas".

Produce tristeza pensar que hay quien pretende presentar como una frivolidad o afán de protagonismo el hecho de que unos representantes públicos, concejales y alcaldesa de un Ayuntamiento claramente nacionalista como el nuestro, decidan luchar contra una imposición que arremete de lleno contra uno de los signos de identidad más importantes de su Pueblo: su bandera.

Ni al más inocente se le escapa la intencionalidad que persigue quien nos quiere obligar a dar cumplimiento a una Ley de Banderas que se ha mantenido en el olvido durante más de treinta años y que nada aporta al bienestar y desarrollo de las personas, sino más bien al contrario, únicamente genera tensión y malestar entre los vecinos y vecinas de un Pueblo, pues violenta claramente su voluntad. La bandera española, más grande o pequeña, colocada en el balcón, en el tejado o en la esquina, se impone como símbolo de la unidad de la patria española, una patria que a la inmensa mayoría de mungiarra nos resulta extraña y ajena. La respetamos, si es que existe, pero no formamos parte de ella. En consecuencia, y como representantes de este Pueblo, debemos oponernos a dicha imposición y así lo estamos haciendo.

La mayoría de los representantes municipales de Mungia hemos sido elegidos en base a un programa concreto, elaborado a su vez desde una visión política determinada de cómo hemos de avanzar en la construcción de nuestro



Mungiako udal ordezkari gehienak programa jakin batean oinarrituta aukeratuak izan gara, gure Herriaren eraikuntzan aurrera nola egin determinaten dauen ikuspuntu politiko jakin batetik abiatuta diseinatutako programa hain zuzen. Sistema demokratikoaren arabera, talde politiko bakoitzaren indarrak gizartearen isla zuzena dirala esan geinke, eta kasu honetan, Mungiako.

6.000 mungiarrek baino gehiagok alderdi abertzaleei emon eutseen bere bozka 2011ko maiatzean egin ziran udal hauetakoetan. Datu horretatik hurrengoa ondorioztatzen dot: norberaren ideiei atxikirik dagoana edota egoki kudeatuko leuen aukera hautatu ebela, enplegua, gizarte zerbitzuak, ingurugiroa, hirigintza, garraiobideak eta antzeko gai garrantzitsuetan. Baino baita be hain begien bistakoak ez diran edo sensibleagoak diran gaietan beharrezko arreta jarri eta defendatuko eban alderdia bere aukeratu ebela uste dot, gure bizitzetan aurrekoak bezain beharrezko eta garrantzitsuak diralako. Azken horreen artean, kasurako, 2011ko uztailak 7an Espaniar Gobernuko ordezkariak gure Udaletxearen kontra hasitako kanpaina edo gurutzada: banderaren asuntoa.

Udal-gobernu honek hasieratik erabagi dau mungiarren gehiengoaren uste eta borondatetzat doguna defendatu eta exijitzea, Herri honen ordezkari garen honetan dagokigun eran.

Protagonismo barik, baina Herri honen ordezkari publiko garen heinean inposaketa hori bete beharrean gagozanaz oharturik. Ezin dogu kanpaina honen azpikeria gutxietsi edo ezereztu: ez da persona, Instituzioa baino, mendeak hartu, makurrarazi nahi dana, eta horrekin batera, berori sostengatzen dauen Herria bera.

Ez da, baina, Gobernuko Ordezkariaren nahia gure ekiteko modua gidatzen dauen kausa nagusia; horren aurrean, gure aurrekoek lehenago egin eben moduan, eta bestelako hainbeste zaitasun eta beharrizani aurre egin behar badeutsagu be, gure nortasuna eta gure sinboaloen defentsan tinko segidu nahi eta behar dogu, gai hau bere gure eguneroko agendan mantenduz.

Ez gara geu izan arazo hau Mungiara ekarri dogunak, baina bai erantzun bat emon behar deutsegunak, guk, udal korporazio honek. Horretarako aukeratu ginduezan eta horretan ari gara. Zuek emon zeunskuen agintea bete guran, eguneroko kudeatzeaz gain, zuen ordezkari garenoi eskatzen deuskuzuen diskurtsoa eta ekintzen arteko koherentzia horri jarraiki, komenigarritasunak eta erosotasunak alde batera utzita.

Epe laburrera begira Mungiako Udaletxearena borroka antza izan daiteke, baina ez da hori arduratu behar gaituena.

Egia da guk bakarrik eta Bizkaiko txoko txiki honetatik ezer gitxi egin geinkela, garaiotan are gitxiago, banderak aspaldiko zerbaitek bezala aurkezten deuskuezan honetan, momentu honetan ez omen dalako komeni gai honetaz berba egitea; "ez da toketan". Beharbada norbaitek esan edo agintea itxaron behar dogu, gai honetaz berba noiz egin behar dan edo noiz ez esango deuskunak, artaldea baikanan. Agian momentu horretantxe baino ez, adimen edo moral handiagodun norbaitek esaten deuskunean atara beharko doguz sentimentuak, ideologiak eta ikurrak hauts-artetik. Ordura arte, esandakoa: "ez da toketan". Isilik egon eta agintzen deuskuena bete behar dogu beraz, besterik ezer.

Hori da antza komeni dana, batzuen eta besteen hauetako kalkuluek horrela eskatzen baitabe. Agindu hori bete behar dabenen kontzientzia eta defendatzen omen dabentzilegiarekiko koherentziak ez ei dauka garrantzirik, Herri baten ordezkari diranak eta ideologia jakin bategaitik hain zuzen ordezkari politikoak bilakatu diran arren. Ez dauka lebarik, orain ez dalako komeni. Besterik ezer.

Herri honetako alkate nazen heinean, ez nator ados horrekin. Gobernuko Ordezkariak ez deusku bandera española inposatzea lortuko, hori horrela gertatuz gero; guk geuk baino, gure ideologia eta sinboaloak ahaztutenean badoguz, bandera hori ipinteko aukera emonda. Horregaitik eskatzen deutsuet zuen babes eta inplikazioa, gure Herriaren erabagiteko eskubidearen bidezko aldarrikapena momentu eta leku oro gogoan mantentzeko, komenientziak edo erosotasunak alde

batera utzita; bakean eta askatasunean gure Herriaren oraina, geroa, eta nola ez, gure sinboaloak bere aukeratzeko. Besterik ezer.

Gaur hamabost, otsailak batean, 150 mungiar inguruk Mungin Geure Ikurrek plataformako kideak lagundu genduzan Moyua plazan egingo genduan kontzentrazino batera, Espainiako Gobernuaren Ordezkartzaren aurrean hain zuzen, protesta modura. Horren ostetik, plataformaren hiru ordezkari hilabeteotan bildutako 1.600 sinadura entregau eutseezan Espainiako Gobernuaren Ordezkariari. Horretan, mungiarren borondatearekiko errespetua eskatzen da, besterik ez.

Bertara hurbildu ginanok, european, zapatauan egin genduan, gure lanari denporarik kendu barik; helburu bardinaren inguruaren sensibilidatetik desbardinak alkartu ginalako zirrarekin, zentzu horretan gure Herriaren eraikuntzan aurrera egiten gendualako ustearekin; gure betebeharra egiten ari ginanaz konbentziduta; baina baita be 150 baino ez izateagaitik triste, askoz gehiago garena jakinda. Dana dala, parte hartu genduan guztiak ilusino eta esperanza handi batek hartu gintuan, laster askoz gehiago izango ginalako ustearekin.

Hemendik aurrera horren lekuko izango dira agiri ofizialak, "Mungin geure ikurrek" leloarekin inprimatuko dira-eta, mungiarren borondatea errespetatzeko aldarrikapenak dirauean artean.

Baina, dokumentuetan zer inprimatzen dan baino askoz garrantzitsuagoa, mungiarrok egunero gure aldarrikapen hau bizirik mantentzea da: arlo pertsonalean, familia eta lagunartean, bentana eta balkoietan, fisikoki eta afektiboki, ikurrinak errepresentatzeko gaitu. Bere presentzia eta defentsa, geure eskuetan baino ez dago-eta.

Hauexa izango da gure garaipena, Espainiako Gobernuaren Ordezkariak gorabehera.

Izaskun Uriagereka Legarreta

Alkatea

Pueblo. El sistema democrático, permite pensar que las fuerzas de cada grupo político son un reflejo directo de la composición de la sociedad, en este caso, mungiarra.

Más de 6.000 mungiaras votaron, en las últimas elecciones municipales de mayo de 2011, a partidos políticos de ideología abertzale. De este dato, deseó concluir que, además de votar por aquella opción que consideraban, gestionaría con mayor acierto o fidelidad a su ideario, aspectos de gran importancia como el empleo, los servicios sociales, el medio ambiente, el desarrollo urbanístico, los transportes, etc., apoyaron también aquellas candidaturas que les ofrecían mayor garantía de atender y defender otras cuestiones menos tangibles a primera vista, o más sensibles si se prefiere, pero igual de necesarias e importantes en nuestras vidas. Entre éstas últimas situamos por ejemplo, y desde el 7 de julio de 2011, día en que el Delegado del Gobierno español emprendió su particular cruzada contra nuestro Ayuntamiento, la cuestión de la bandera.

Esta corporación ha decidido desde un inicio, defender y exigir ante los Tribunales el debido respeto hacia lo que interpretamos es el sentir mayoritario de los y las mungiaras, tal y como nos corresponde hacer como representantes políticos de este Pueblo.

Sin protagonismos, pero también sabedores de que, precisamente en cuanto representantes públicos de éste Pueblo somos requeridos para el cumplimiento de dicha imposición. No debemos caer en la trampa de infravalorar o banalizar lo que se pretende: no es la persona, sino la Institución, la que se pretende doblegar y humillar, y junto con ella, al Pueblo que la sustenta.

Pero no es la intencionalidad del Delegado del Gobierno la que guía principalmente nuestro proceder; frente a la misma, como hicieron nuestros mayores hace unos años, y a pesar de otras muchas dificultades y penurias a las que necesariamente hemos de atender, queremos y debemos mantenernos firmes en la defensa de nuestra identidad y nuestros símbolos, teniendo también presente ésta cuestión en nuestra agenda diaria.

No somos nosotros y nosotras quienes hemos traído este problema a la actualidad mungiarra, pero sí somos

nosotros y nosotras, ésta Corporación Municipal, quienes debemos darle una respuesta. Para eso se nos ha elegido y en eso estamos. Tratando de atender el mandato que nos otorgasteis, atendiendo además de la gestión del día a día, vuestra reclamación de coherencia entre discurso y acción a quienes os representan, independientemente de conveniencias y comodidades.

Puede que a corto plazo sea una lucha infructuosa la del Ayuntamiento de Mungia en esta cuestión. No es lo que debe preocuparnos.

Es verdad que poco podemos hacer en nuestra soledad desde este pequeño rincón de Bizkaia, máxime en épocas como las actuales, en que las banderas quieren ser presentadas como algo basado en épocas pretéritas, simplemente porque en este momento no conviene hablar del tema; "no toca". Será que debemos esperar a que alguien nos diga u ordene cuándo procede o no hablar de éste tema, como si de un rebaño de ovejas se tratase. Será que sólo y exclusivamente en ése momento, en que alguien de superior inteligencia y altura moral nos los indique, deberemos todas y todos recuperar del trastero y desempolvar sentimientos, ideologías y símbolos. Hasta entonces, simplemente eso: "no toca". Debemos por tanto, guardar silencio y cumplir sin rechistar lo que nos ordenan.

Es lo conveniente, al parecer, puesto que los cálculos electorales de unos y otros así lo exigen. No parece importar lo más mínimo si quienes deben cumplir ésta orden, legítimos representantes de un Pueblo, tienen algo que objetar en conciencia y coherencia con la ideología que dicen defender y gracias a la cual ostentan una representación política. No importa, porque ahora no conviene. Así de simple.

Como Alcaldesa de este Pueblo, no comparto esta visión. No es el Delegado del Gobierno quien logrará imponer la bandera española, sino nosotros y nosotras, quienes le brindaremos la ocasión de colocarla si nos olvidamos de nuestra ideología y nuestros símbolos.

Por eso os pido vuestro apoyo e implicación, para mantener presente en todo tiempo y lugar, al margen de conveniencias y comodidades, la reivindicación legítima del derecho a decidir de nuestro Pueblo; a decidir en paz y libertad su presente, su futuro, y

por supuesto, sus símbolos. Ni más ni menos.

Hace quince días, el uno de febrero, unos 150 mungiaras acompañamos a las y los componentes de la Plataforma "Mungin, Geure Ikurrek" a una concentración en la Plaza Moyua, frente a la Delegación del Gobierno español, en señal de protesta por esta imposición. Tras la misma, tres representantes de la misma, entregaron al Delegado del gobierno español las más de 1600 firmas recogidas durante los últimos meses. Con ellas, los y las firmantes le reclaman sencillamente, respeto hacia la voluntad de los y las mungiaras.

Quienes les acompañamos, lo hicimos bajo la lluvia, en sábado, para no restar tiempo a nuestra agenda diaria; con la gratificante sensación de agrupar distintas sensibilidades en torno a un fin común, de avanzar en la construcción de nuestro Pueblo en ese sentido; con el convencimiento de que hacemos lo que debemos; pero también con la sensación agridulce de sumar 150 cuando sabemos que somos muchos más. Pese a ello, a todos y todas las presentes nos envolvió la ilusión y la esperanza de sumar muchos más en un futuro cercano.

Ahora serán los impresos oficiales los que continuarán con el testigo, pues el logotipo y lema de "Mungin, Geure Ikurrek" se imprimirán en los mismos mientras la reivindicación de los y las mungiaras de que su voluntad sea respetada, deba permanecer presente en nuestras existencias frente a imposiciones ajenas.

Pero mucho más importante que las impresiones en documentos, es que los y las mungiaras mantengamos viva nuestra reivindicación en nuestro día a día: en nuestra esfera personal, entre familiares y amigos, en ventanas y balcones, física y afectivamente, la ikurriña es la bandera que nos representa, su presencia y defensa depende únicamente y exclusivamente de todos nosotros y nosotras.

Esa será nuestra victoria, pese lo que le pese al Delegado del Gobierno Español de turno.

Izaskun Uriagereka Legarreta



# Mungiako Udaletxean espainiar bandera ipintzearen inposaketaren aurkako Adierazpen Instituzionala

Espainiar Gobernuko ordezkariaren aginduari jarraituz ipinitako epai-auziperatza eta horren ondorioz hil askotan luzatu den prozesu judicialaren ostean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak sententzia ebatzi du Mungiako Udalaren aurka, ondoko aginduarekin: “eraikinaren kanpoaldean eta barrualdeko toki berezi batean Espainiako bandera ipintzea, gainontzeko bandera ofizialekin batera”. Aipatutako sententzia hau ez da irmoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean apelazio-errekursoa sartzeko aukera baitago.

Aipatutako ebaezpenaren aurrean, zinegotzi abertzaleen gehiengoak osatutako udalbatza baten eta honek ordezkatzen duen herri abertzale baten borondatearen guztiz kontrako izanik, behin eta berriro hauteskundeen emaitzek erakutsi duten bezala, Mungiako Udalak, 2014ko urtarrilaren 19an izandako Udalbatzan, ondoko **Adierazpen Instituzionala** onartzea adostu du EAJ/PNVren 9 eta EH-BILDUren 5 udal ordezkarien aldeko botoekin:

**1.** 2012ko azaroaren 30ean Udalbatzan onartu zen Adierazpenean egin zen bezala, udal korporazio osoa espainiar bandera udaletxeen jartzera derrigortzen duen **lege injustu, atzerakoi eta frentistaren erabilera arbuiatu eta salatzen dugu**.

**2.** Aipatutako sententziak 30 urte baino gehiagotan Euskal Herriko herri gehienetan alkarbizta ahalbidetzeko helburuagaz kontuan izan ez dan Lege baten edukia baino ez du inposatzen.

Hogeita hamar urte horietan mungiarron artean alkarbizta plural eta baketsua izateko nahia izan da lehentasuna, **duela 37 urte legezketzat ezarri zen ikurriña gure udaletxeko balkoian ipintzearen irriki legitimoa nagusi izan delarik. Baino gaur, oraindik, ikurriña gure herri-sinbolo moduan erabiltzeko nahi horrek baldintzatua eta beraz ezeztatua izaten jarraitzen du, inhabilitazio eta desobedientzia zigorren mehatxua erabiliz gure herriarentzat arrotza den espainiar bandera bat ipintzeko derrigortasunaren bitartez.**

Urte hauetan guztietan zehar, Mungiako biztanleek hauteskunde guztietan euren borondate eta sentimendu abertzalea erakutsi duten arren, **udaletxeko balkoian ez da inolako banderarik egon, gure herria, Euskal Herria, eta Estatu Espainiarraren arteko harremanak inguratzen dituen estatus juridiko eta politikoa berdefinitzeko arazoa behin betiko konpontzen ez den bitartean**, euskaldunoi gure oraina eta etorkizuna era aske eta osoan erabakitzea ahalbideratuz.

**Hori dala eta, Mungiako biztanle gehienetan alkarbizta ahalbidetzeko helburuagaz kontuan izan ez dan Lege baten edukia baino ez du inposatzen.**

**3.** Espainiar bandera mungiar gehienontzat bandera arrotz bat da; gurea ez den nazio baten subiranotasuna adierazten duen bandera; derrigorren inposatu nahi zaigun batasun eta integridade patriotiko baten sinboloa; euskadunok, hala ere, baztertzen eta salatzen doguna, ez delako existitzen; guk boluntarioi onartu eta nahi ez dogulako Espainiar Gobernuko ordezkariaren burugogorkeria bultzatutako epai judicialen bitartez inposatu nahi diguten bandera.

XXI. mendean, gizartea dituen arazo politiko eta ekonomikoak kontuan izanda, eta oraindik gure herriaren marko juridiko-politikoa konpontzea lortu ez dela, ezin da ulertu ezta onartu espainiar Gobernuaren ordezkariak bere ahalegin guztiak erabiltzea gure herriaren borondatea bortxatzeko.

Hori dala eta, gure ukapen osoa erakusten diegu era honetako jarrera eta inposaketa guztiz antidemokratikoei, eta **Espainiar Gobernuko ordezkariari exijitzen diogu Mungiako herriak era aske eta demokratikoan aukeratutako**

## Declaración Institucional ante la imposición de colocar la bandera española en el Ayuntamiento de Mungia

Tras la demanda judicial interpuesta a instancia del Delegado del Gobierno español y largos meses de procedimiento judicial, el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Bilbao, ha dictado Sentencia contra el Ayuntamiento de Mungia, ordenándole **“hacer ondear la bandera de España en el exterior y en lugar principal del interior del edificio sede del mismo, junto con las demás banderas oficiales”**. Dicha Sentencia no es firme, pues cabe Recurso de Apelación contra la misma ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Ante esa resolución, a contracorriente de un Ayuntamiento conformado por una amplísima mayoría de corporativos abertzales, representantes a su vez de un pueblo igualmente abertzale, tal y como ha quedado de manifiesto una y otra vez en los diferentes resultados electorales, el Ayuntamiento de Mungia en sesión Plenaria celebrada el día 19 de enero de 2014, acuerda aprobar, con el voto favorable de los 9 representantes municipales de EAJ/PNV y 5 de BILDU la siguiente **Declaración Institucional**:

**1.** Tal y como ya hicimos en la Declaración aprobada en sesión plenaria de fecha 30 de noviembre de 2012, **rechazamos y denunciamos la utilización de un marco legal injusto, retrógrado y frentista** para obligar a la Corporación Municipal a colocar la bandera española en el Ayuntamiento.

**2.** La referida Sentencia no hace sino imponer el contenido de una Ley

que durante más de 30 años ha sido “obviada” en aras a posibilitar la convivencia en la inmensa mayoría de los pueblos de Euskal Herria.

Treinta años en los que el deseo de convivencia plural y pacífica han predominado entre los y las mungiarras, imperando sobre su legítima aspiración y deseo de hacer ondear en el balcón municipal la **Ikurriña, legalizada hace ahora 37 años, pero aún hoy subordinada y por tanto negada en su esencia como símbolo nacional por una bandera española extraña y ajena a nuestro Pueblo** que ahora, por medio de una legalidad impuesta bajo la amenaza de sanciones de inhabilitación y desobediencia, se nos quiere obligar a colocar.

Durante todos éstos años, y a pesar de que los vecinos y vecinas de Mungia han expresado de forma abrumadora su voluntad y sentimiento abertzale en todas y cada una de las convocatorias electorales, **el balcón municipal ha permanecido libre de banderas en tanto no se resolviese definitivamente el problema de redefinición del estatus jurídico y político que enmarca las relaciones de nuestro Pueblo, Euskal Herria con el Estado Español**, posibilitando a los vascos y vascas la libre y plena determinación de nuestro presente y nuestro futuro.

Por ello, mostramos nuestro más firme rechazo a éste tipo de comportamientos e imposiciones abiertamente antidemocráticos y **exigimos al Delegado del Gobierno del Estado español que cese en su acoso político a los representantes municipales, libre y democráticamente elegidos por el pueblo de Mungia y les permita**

la que no ondea bandera alguna en el edificio consistorial, simplemente se mantenga, hasta que se dé una solución definitiva al conflicto vasco.

**3.** La bandera española es para la inmensa mayoría de los y las mungiarras una bandera extranjera; una bandera que representa la soberanía de una Nación de la que no nos sentimos partícipes; un símbolo de una unidad e integridad patriótica que se nos pretende imponer por la fuerza, pero que los vascos y vascas rechazamos y denunciamos por inexistente; una bandera cuya presencia, por no querida ni admitida voluntariamente, no puede sino recurrir a la obstinación del Delegado del Gobierno español para ser impuesta a golpe de sentencia judicial.

No es ni admisible ni entendible que en pleno siglo XXI, con cuestiones políticas y económicas prioritarias acuciantes para la sociedad y en un marco jurídico-político aún pendiente de resolver para nuestro País, el representante del Gobierno español dedique sus esfuerzos a violentar la voluntad popular de nuestro Pueblo.



**udal ordezkariei egiten ari den jazarpen politikoa bertan behera utz dezala, horrela eman zaien hirritarren agindua ordezkatzetan eta defendatzen jarrai dezaten.**

**4.** Berriro ere, inolako zeharbide barik euskaldunok gure oraina eta etorkizuna bakean eta askatasunean erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, denon artean adostutako marko juridiko, politiko, sozio-ekonomiko, instituzional eta sinboliko batean, eta gure herriaren borondatearen aurkako eragin eta baldintzarik gabe.

**5.** Honen guztiaren aurrean, Mungiako udalbatza osatzen dugun kideok, adierazpen instituzional hau sinatzen dugu orain arte egin izan dugun bezalaxe, **gure ezaugarriak lehialtasunez defendatzen eta herri honen alde lanean jarraituko dugulako beti ere mungiarren borondatea defendatzen, ahal dugun neurrian, erakunde politiko edo judizial guztietan.**

Ildo honetan, **Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean apelazio-errekursoa jartzeko asmoa adierazten dugu, herri honen borondatea behin betiko errespetatua izan dadin itxaropenarekin.**

**6.** Denoi dagokigu, batez ere horretarako aukeratuak izan garenoi, pentsamolde politiko jakin bat jarraituz, gure Herriaren duintasuna eta identitatea defendatzea eta babestea,

ordezkatuta gauden edozein erakunde edo lekutan.

Mungiarron borondateari erabateko errespetua exijitzeo asmoarekin, **Gasteizko legebiltzarrean ordezkatuta dauden Alderdi politiko abertzale guztie eta euren ordezkariei, Euskal Herriko biztanleriaren parte garrantzitsu baten ordezkari diren horiei, gehiago itxaron gabe, euren agenda politikoetan gure ikurrei eta banderei, batez ere ikurriñari, zor zaion errespetua osoa aldarrikatzea eskatzen diegu. Honez gain, edozein erakunde edo ordezkari politikoren kontrako inposizio eta bidegabekeria ekiditzeko denak batera lan egin dezaten ere eskatzen dugu.**

Lege bat ere ez da betiko ezta aldagaitza ere. Guztiz posiblea, demokratikoa eta beharrezkoa da ekimenak proposatzea gizartearen sentimenduak isladatzen dituen araudietara moldatzeko.

1981ko Banderen Legea, negoziazio politiko baten bitartez aldatu ahal eta behar da ez baitu inoiz lortu ezta lortuko ere berak nahi duen bezala, herri honen identitate nazionalarekin bat etortzea.

Gure udaletxean edo nahi ez duen beste edozein erakundetan, Espainiako bandera ipintzearen inposaketa, Espainiar Gobernuak eta bere ordezkariak gure Herria makurratzeko beste era bat

baino ez da. Hori dela eta, **Estatu espainiarrekin dauztagun harremanak askatasunez bideratu eta adosten ez diren bitartean, Eusko Legebiltzarrean dauden gure ordezkariei zera eskatzen diegu: Espainiar estatuko agintariekin aldibaterako akordioetara heltzeko ahalegina egin dezatela, horrela erabakitzent duten udaletxeetako balkoietan inolako banderarik ez ipintzeo aukera izan dezaten; beti ere, askatasun osoz erabakitakoa errespetatuz.**

**7.** Adierazpen instituzional honek, Mungiako biztanleriaren gehiengoaren borondateari ofizialtasuna baino ez dio ematen.

**"Mungin gure ikurrek" plataformaren** baitan elkartuta, behin eta berriz adierazi dute ekintza eta mobilizazio ezberdin bitartez, ezarri nahi den inposaketa honen guztiz kontrako jarrera.

Auzokideek, elkarrekin eta udalbatzak elkar hartuta, mungiar guztiok sufrizen ari garen eraso hau arbuiatu eta salatu egiten dugu. Horregatik, aurrerantzean, eta egoera hau mantentzen den bitartean, banakoei eta erakunde ofizialei zuzentzen zaizkien inprimaki ofizial guztietan "Mungin gure Ikurrek" plataformaren lema edota logoa agertuko da, gure borondate eta ikurrenganako errespozoaren exijentzia kontuan hartzeko.

Mungian, 2014ko urtarrilaren 19an

**representar y defender el mandato popular tal y como les ha sido otorgado.**

**4.** Una vez más, reivindicamos sin ambages el derecho de los vascos y vascas a decidir en paz y en libertad nuestro presente y nuestro futuro, a dotarnos del marco jurídico, político, socio-económico, institucional y simbólico que acordemos, sin injerencias ni condicionantes ajenos a la voluntad de nuestro Pueblo.

**5.** Ante todo ello, los miembros de la corporación municipal que suscribimos esta Declaración Institucional reiteramos nuestro firme compromiso de seguir trabajando a favor de este Pueblo con lealtad a nuestras señas de identidad y defendiendo la voluntad de los y las mungiaras en todas y cada una de las instancias tanto judiciales como políticas a las que podamos acceder, tal y como lo hemos venido haciendo hasta el momento.

En esta línea, manifestamos nuestra **intención de recurrir la Sentencia ante el Tribunal Superior de Justicia con la esperanza de que la voluntad de nuestro pueblo sea definitivamente respetada.**

**6.** Tratar de preservar y defender la dignidad e identidad de nuestro Pueblo es algo que nos concierne a todos y todas, máxime a quienes hemos sido elegidos, en cualquiera de las instituciones e instancias que lo representan, conforme a un ideario político determinado.

En la pretensión de exigir el máximo respeto a la voluntad de los y las mungiaras, **solicitamos a todos y cada uno de los partidos políticos abertzales y a sus representantes en el Parlamento Vasco de Gasteiz, legítimos representantes de la voluntad popular de una importante parte de Euskal Herria, que incorporen también a sus agendas políticas la exigencia de respeto a nuestros símbolos y banderas, especialmente la Ikurriña, sin mayor demora, y aún más fuerzas para trabajar conjuntamente con el fin de evitar este tipo de atropellos e imposiciones en cualquier de las instituciones y sobre cualquier representante público de Euskal Herria.**

Ninguna ley es inmutable ni perpetua. Es posible, necesario y absolutamente democrático plantear iniciativas legislativas encaminadas a la adecuación de las normas legales al sentir de la sociedad en la que han de tener reflejo.

La Ley de Banderas del año 1981, puede y debe ser modificada fruto de una negociación política, puesto que no ha logrado ni logrará jamás la identidad nacional que pretende.

La imposición de colocar la bandera española en nuestro Ayuntamiento y en cualquier otro que no lo deseé, no es más que una forma de tratar de humillar a nuestro Pueblo por parte del Delegado del Gobierno y del Gobierno español. Ante ello, y mientras

nuestro marco de relaciones con el Estado español no sea libremente configurado y acordado, **solicitamos asimismo a nuestros representantes en el Parlamento Vasco de Gasteiz, legítimos representantes de la voluntad popular de una importante parte de Euskal Herria, que incorporen también a sus agendas políticas la posibilidad de mantener sin bandera alguna los balcones de aquéllos Ayuntamientos que así lo decidan, en respeto siempre de la decisión que desde los mismos libremente se adopte.**

**7.** Esta Declaración Institucional no hace sino oficializar el sentir mayoritario de los vecinos y vecinas de Mungia.

Aglutinados en torno a la **Plataforma Mungin Gure Ikurrek**, han expresado reiteradamente y a través de diversas iniciativas y movilizaciones, su posicionamiento absolutamente contrario a la imposición pretendida.


**Vecinos y vecinas, asociaciones y corporación municipal conformamos una respuesta unitaria de rechazo y denuncia de la agresión de la que todos los y las mungiaras somos objeto.** Por ello, en adelante, y mientras esta situación se mantenga, **todos los impresos oficiales dirigidos a particulares y entidades oficiales llevarán sobreimpreso el lema y/o logotipo de "Mungin, gure ikurrek" con el objeto de recordar y mantener presente la exigencia de respeto a nuestra voluntad y nuestros símbolos.**

Mungia, a 19 de enero de 2014





# Instituzino-Adierazpena, Eusko Legebiltzarreko ordezkari abertzale guztiei jakinarazi jake



Pasa dan urtarrilak 19an onartu zan Instituzino-Adierazpenean adostu zan moduan, Mungiako Udaletxeen bandera española ipinteko inposaketak ekarritako arazoa Eusko Legebiltzarreko ordezkari abertzale guztiei jakinarazi geuntzen, euren laguntza eta bitartekotza pertsonala eskatzen asmoz, asunto hau Legebiltzarrean eztabaida politiko bilakatu daiten, aurrean dogun arazo

politikoarentzat konponbide politiko posible bat adosteko.

Eusko Legebiltzarreko Mahaien Mungiako Udaletxearen eskabidearen inguruan berba egin eben pasa dan zezeilak 11n eta talde parlamentario guztiei jakinaztea adostu zan, horretako baten batek Mungiako udal-korporazio eta herriak eskatutakoaren inguruan egitasmorik planteau nahiko baleu.

## Mungia traslada la declaración Institucional al Parlamento Vasco

Tal y como se acordó en la Declaración Institucional aprobada el pasado 19 de enero, se ha dado traslado del problema suscitado con la imposición de colocar la bandera española en el Ayuntamiento de Mungia, a todos los y las representantes abertzales del Parlamento Vasco a fin de solicitarles su ayuda e intermediación personal, para que esta cuestión sea objeto de debate político en sede parlamentaria y pueda consensuarse una posible solución política a un problema político como el que nos ocupa.

La Mesa del Parlamento Vasco trató la petición del Ayuntamiento de Mungia el pasado 11 de febrero de 2014 y acordó dar traslado de la misma a todos los grupos parlamentarios, por si alguno de los mismos desea plantear alguna iniciativa en el sentido solicitado por la corporación municipal y el pueblo de Mungia.



# 150 Persona eta 1.600 Sinadura baino gehiago batu ziran bilbon, mungiarren borondatea defendatzeko

Pasa dan zezeilak 1ean 150 persona baino gehiago bildu ziran Mungin geure ikurrek herri plataformako kideekin batera Bilbao joan eta Moyua plazan mungiarren borondatea defendatzeko alkarreratzea egiteko asmoz, baita bildutako 1.600 sinadura baino gehiago Spainiako Gobernuaren Ordezkartzan entregatzeko bere. Izaabe, Mungiako Udaletxeko balkoian bandera española ipinteko aginduaren sententzia jaso eta gero, herri moduan erantzun bat emoteko beharra eta nahia agertu eben mungiar askok.

Urtebete baino gehiago bada Mungin geure ikurrek ekimena sortu zanetik, 2012ko udazken bueltan. Mungiako udaletxeen Spainiako bandera jarri beharraren aurrean sortutako herri dinamika da, bertako ikurren alde egiteko eta inposizino arrotzen kontra, azken batean "erabaki propioak hartzeko eskubidearen defentsan", Moyuan esan zuten modu berean.

Horrela, hilebeteotan egitasmoko honek 1.600 sinadura baino gehiago batu ditu. Sinadurok eskuetan hartu eta Bilbao eroan ebezan, Spainiako

Gobernuaren Ordezkartzan entregatz, mungiarren borondatea errespetatzeko eskatzeko. Aurretik, Moyua plazan batu ziran eta bertan idatzi bat irakurri bere, Mungin geure ikurrek dinamikaren bidea zein izan dan azalduz, eta bere nahia argiesanez: "ez dogu bandera española Udaletxeen gure".

Eta lana alperrik egiten ari dirala dinonik be badagoala jakitun, zera esan eben: "herritarrak aktibatzea ezin da inoz alperrikoia izan, herrie eraikitzea ez dau soberan. Bide honek honaino ekarri gaitu, eta lortutako galtzen itxi beharrean, inoren erantzunik itxaroten lotu barik, batu dogun indarra beharrean jarri behar dogu; ukaziotik eraikuntzara pasa".

Bide horretatik, Mungian mungiarren uste, sentimen eta borondatetik jaiotako erabagiak hartu behar diralako korbentziduta, "Gure Esku Dago mugimenduan parte hartzera" deitu eben, "erabakitzeko eskubidearen alde behar eginez, geure herrie alor guzietan eta bere osotasunean eraikitzeko".



## Mungin geure ikurrek, por el derecho a defender la voluntad de los mungiarros

El pasado 1 de febrero la plataforma Mungin geure ikurrek hizo un llamamiento para acudir a Bilbao, concretamente a la plaza Moyua para realizar una concentración en favor de la ikurriña y en contra de la imposición de poner la bandera española en el balcón del Ayuntamiento. Así, más de 150 personas se dieron cita en la capital vizcaína para pedir que se respete la voluntad de los mungiarros y para ello, se concentraron durante alrededor de media hora frente al Gobierno Civil español tras lo cual se leyó un escrito explicando la trayectoria de esta dinámica popular que se creó hace más de un año con el objetivo de defender los símbolos y voluntad propios frente a las imposiciones. Asimismo, se presentaron ante la Delegación del Gobierno Español más de 1.600 firmas que avalaban la firme voluntad de los mungiarros de ser dueños de su futuro. Mungin geure ikurrek instó a todos los mungiarros que deseen "construir nuestro pueblo en todas sus facetas" a participar en la plataforma Geure esku dago y a trabajar por el derecho a decidir.



[www.mungia.org](http://www.mungia.org)



**MUNGIA**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

